

## **KOSTUAK**

Parkearen hasierako inbertsioa oso handia izango da beraz Eusko Jaurlaritzaren laguntza behar izango dugu. Kostu asko egongo dira guk nahi dugun proiektua aurrera eramateko. Gure parkea diseinatzeko arkitekto edo diseinatzaile baten lana azpikontratatzeari behar izango dugu. Horretaz gain, behin diseinatuta eraiki behar izango da eta horretarako materiala, makinak, langileak... behar izango ditugu.

Jarduera martxan dagoenean kostuak egongo dira kostu finkoak (manteni mendua beharko ditugun materialak adibidez, garbitzeko, arrainak osasuntsu mantentzeko, instalazioak bezeroentzat ondo eta erakargarri egoteko...) eta kostu aldakorrak(itsasontzien gasolina). Energiaren aldetik ez dugu arazorik izango, gure energia olatuetatik aterako dugu, energia berriztagarri bat izateaz gain askoz merkeagoa dena.

Gure kostu zuzenak salduko ditugun produktuen erosketak izango dira eta

Baita ere kostu sozialak egongo dira, gizarteari mesede egingo diogu Lemoizen dagoen zentral nuklearra desagertzen eta gure parkea jartzen. Pertsonak kontzientziatuko ditugu natura zaintzearen garrantziaz eta naturaz gozatu ahal egingo dela naturari kalte egin gabe. Azpimarratu nahi dugu kostu sozial negatiborik ez direla egongo gure proiektuan, hain zuzen ere kontrakoa. Gizarteari mesede egingo diogu Lemoizen dagoen zentral nuklearra desagertzen eta gure parkea jartzen. Pertsonak kontzientziatuko ditugu natura zaintzearen garrantziaz eta naturaz gozatu ahal egingo dela naturari kalte egin gabe.

